




Euskal ekonomiaren termometroa 100,6an kokatu da

EAEko ekonomiaren termometroa
Indizea




Euskal ekonomiaren termometroak 100,6ko balioa izan zuen martxoan, eta hazkunde sendoaren behe-mugaren ingururaino jaitsi zen. Industriaren eta kanpo sektorearen ahulezia konpentsatu zuten eraikuntzaren dinamismoak, zerbitzuen bilakaera onak eta barne eskariaren sendotasunak, kontsumoaren aurrerapen nabarmenarekin.

Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

Otsailean, 403 enpresa eratu ziren Euskadin

Euskadin eratutako enpresak
Urte bakoitzeko otsaila



INEk argitaratutako informazioaren arabera, otsailean 403 enpresa eratu ziren Euskadin, 2025eko hila-bete berean baino %29,6 gehiago. Bestalde, sozietate hauek eratzeko erabilitako kapitala 29 millioi euro ingurukoa izan zen.


Iturria: INE.



Inflazioa %3,4 hazi zen martxoan

Kontsumoko prezioen indizea (KPI)

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.


Martxoan, Euskadiko KPIk %3,4ko urte arteko igoera izan zuten, otsailean baino puntu bat gehiago.

Azpiko inflazioa %3,0 izan zen, zerbitzuek bultzatuta, eta hondarrekoa, berriz, %5,7koa, Irango gerraren hasierarekin lotutako energiaren garestitzeagatik (%6,5). Nahiz eta elikagaien garestitzea moteldu, petrolioaren inpaktua KPIan islatzen hasi da, oraindik saskiaren osotasunera zabaldu ez den arren.

Euskadiko BPGa %2,2 hazi zen lehen hiruhilekoan

Euskadiko BPGaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu berri duen aurrerapenaren arabera, **2026ko lehen hiruhilekoan Euskadiko ekonomia %2,2 hazi zen 2025ko lehen hiruhilekoaren aldean.** Horrela, hazkunde sendoko bidean jarraitzen du, aurreko hiruhilekoetan erregistratutakoen oso antzekoak diren balioekin. Era berean, enpleguak bere bilakaera positiboarekin jarraitu zuen, aurreko urteko aldi beraren aldean %1,3ko aurrerapena erakutsiz.